




Eskualdeko negozioen egoera otsaila 2021

2021eko otsailean, Leartibai Garapen Agentziak inkesta bat abiatu zuen eskualdeko negozioek Covid garaian pairatu duten egoera aztertu eta beraien egungo egoera ezagutzeko helburuarekin.


Inkesta egiteko orduan, bi alderdi nagusi hartu ziren kontuan:

1) Enpresaren tamaina (langile kopurua):

Irudian ikus daitekeen bezala, negozioen % 97ak 10 langile baino gutxiago ditu, % 3ak, ordea, 10-50 langile artean.



2) Negozio mota (sektorea):



% 31	Merkatari txikiak
% 28	Turismoa
% 14	Ostalaritza
% 10	Osasuna eta estetika
% 7	Irakaskuntza eta logopedia
% 7	Ekoizpen zerbitzua
% 3	Kultura

Covid-19aren eragina Lea-Artibaiko negozioetan

COVIDak gogor kolpatu ditu Lea-Artibaiko negozioak. Izan ere, horietako hainbat aldi baterako zarratu behar izan dituzte, eta irekitzerakoan indarrean jarritako neurriak hartu behar izan dituzte.


Ikerketa egin den bitartean (2021eko otsailean), **irekita mantendu diren negozioak % 72a** izan dira eta **itxita egon direnak % 28a**. Gainera, irekita egon diren negozioak zein itxita egon ostean ireki direnak une oro hartu dituzte kontuan segurtasun neurriak. Hori dela eta, negozioen % 100a moldatu dira COVIDaren protokoloak agintzen dituen neurrietara.

Horrez gain, hornitzaileei ordainketak egiteko orduan, **% 24ak arazoak izan ditu**. Ordaintzeko arazo gehien izan dituztenak ostalaritza eta turismo sektoreak izan dira, negozioak itxita edukitzeak gogor eragin baitie.

Hala ere, pandemiak ez du berdin eragin negozio guztietan. Jarraian, sektore bakoitzaren egoeraren analisia ikusi daiteke.

	😊	☹️
OSTALARITZA		% 100ari COVIDak negatiboki eragin dio. Negozioa itxita eduki behar izan dute: bezerorik ez dute izan eta langile asko ERTEn egon dira.
MERKATARI TXIKIAK	% 89a ondo dago, gehienek negozioa zabalik izan baitute.	
TURISMOA		% 100ari COVIDak negatiboki eragin dio, negozioa itxita eduki behar izan baitute.
OSASUNA ETA ESTETIKA	% 67a ondo dago, bezeroak izan dituzte eta neurriak hartuta egoerari eutsi ahal izan diote. % 33a okerrago dago, bezeroen jaitsiera nabaritu dutelako.	
KULTURA		Eragin guztiz negatiboa. Kultur ekitaldiak bertan behera utzi beharrak egoera kaskarrera eraman du sektore hau.
EKOIZPEN ZERBITZUA	Sektore honetan ez daude negozio guztiak egoera berdinean. Batzuei ez zaie ekoizpena jaitsi, ostera, beste batzuei bai.	

Kontratazioari dagokionez:



% 4	Kontratazio berriak egingo dituzten negozioak
% 74	Etorkizun hurbilean kontratazio berriak egiteko esperantza duten negozioak
% 100	Kontratu tenporalak
% 45	Ostalari eta sukaldarien eskaria
% 22	Kirol monitoreen eskaria
% 11	Ingeles irakasle, garbitzaile eta kultur dinamizatzaileen eskaria

Ondorioak

- ✓ 2021eko otsailean, Leartibai Garapen Agentziak Lea-Artibaiko eskualdean burututako inkestan zazpi sektore desberdin aztertu dira: merkataritza; turismoa; ostalaritza; osasuna eta estetika; irakaskuntza eta logopedia; ekoizpena eta kultur sektorea.
- ✓ Eraitzen arabera, COVIDak sektore guztietan eragin du, eta, ondorioz, **% 100ak izan du egokitu beharra**. Hala ere, pandemia egoerak ez ditu negozio guztiak berdin kolpatu; izan ere, **2021eko otsailean oraindik negozioen % 28a itxita zegoen**. Gainera, gehien sufritu duten sektoreak ostalaritza eta turismoarenak izan dira, inkestan argi ikusten den bezala.
- ✓ Azkenik, kontratazioei dagokionez, une honetan ez da kontrataziorik egingo. Dena dela, etorkizun hurbil batera begira, hots, 2021eko udara begira, **% 26ak kontratu berriak egingo ditu**. Kontratu horien **% 100 tenporalak** izango dira eta **% 45ean sukaldari eta ostalari profila balioztatu da**.